

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gazteria Departamentuak auzolandegietarako izena emateko epea noiz irekiko den iragarri du

185 plaza eskaini dira, horietatik 95 Nafarroan, eta eskaera egiteko epea hutsuneak dauden bitartean irekita egongo da

Miércoles, 13 de abril de 2011

Nafarroako Gobernuko Nafarroako Gazteria Institutuak ostegun honetan, apirilak 14, auzolandegietarako izena emateko epea irekiko dela iragarri du. Epe hori plazak agortzen direnean amaituko da.

Auzolandegiak 15 eta 30 bitarteko gazteei bideratutako proposamena dira. Hamabost eguneko egonaldietan, ondare arkitektonikoa mantentzearekin, aztarna arkeologikoak berreskuratzearekin, eta jomugako herrien ingurumen-zainketarekin lotutako jarduerak garatzen dira.

184 plaza eskaini dira, horietatik 95 Foru Komunitatean, hain zuzen ere, Lizarran, Arangurenen, San Adriánen eta Artaxoan. Beste 95 plaza Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetarako eta atzerrirako dira, hala nola Alemania, Frantzia, Grezia, Islandia, Italia, Lituania, Erresuma Batua, Txekiar Errepublika, Serbia, Turkia, Tanzania, Maroko eta Estatu Batuak. Plazak eskatzeko epea hutsuneak dauden bitartean irekita egongo da, eta 72 euro ordaindu ondoren esleituko dira. Kuota horren barruan, ostatua, mantenua eta programara bildutako jarduerak sartzeko dira. Bidaia-erakargarritasunak parte-hartzaileak ordaindu behar ditu.

Izena emateko Nafarroako Gazteria Institutura joan behar da (Yanguas y Miranda 27. Iruñea). Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 848 42 39 00 telefono-zenbakira edo kontsultatu

www.juventud.navarra.es helbidean.

Nafarroako Gazteria Institutuak gazteei boluntarioritza jarduerak, hizkuntzen ikasketa edo aisiara bideratutako bestelako jarduerak egiteko beste programa batzuk eskaintzen ditu, eta horietan izena emateko epea irekita dago:

- Udako jarduerak aire zabalean, urekoak eta abenturakoak 12 eta 17 urte bitarteko gazteentzat.

- Joan, parte hartu eta kontaiguzu, garapenerako lankidetzaproiektu batean borondatez lan egin nahi duten 20 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. 25 plaza eskaintzen dira. Izen-ematea, apirilaren 11tik maiatzaren 4ra.

- Hizkuntza-ikastaroak atzerrian 16 eta 30 urte bitarteko gazteentzat.

- Europako boluntarioritza zerbitzua 18 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. 2 eta 12 hilabete bitarteko egonaldietan, erakunde batekin

lankidetzan aritzen da gizarte-, ingurume-, kultura-, kirol- eta arte-izaerako jardueren multzo zabalean.